

6. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresak harreman bezeroekin harreman estua izatea nahi dugu eta fidelak izatea gure enpresarekiko.

Gure bezeroekiko harremana mota ezberdinetakoa izango da. Alde batetik autozerbitzu makina bat ezarri nahi dugu herriaren erdian, jendeak edozein momentuan gure eztea erosi ahal izateko (beste produktuak ez ditugu makinaren bidez ekoiztuko, oso sentsibleak direlako eta usteldu ahal direlako). Laguntza pertsonalaren banaketa ere garatuko dugu, denda fisiko bat izango dugulako. Gainera laguntza pertsonal eskainia garatu nahi dugu, beste hainbat dokumentutan esan dugun bezala, etxe batetik bestera joatea gustatuko litzaiguke gure produktuak ekoizteko (uste dugulako gure bezero asko pertsona nagusiak izango direla eta modu honetan gure bezero fidelak izatea lortuko dugu). Azkenik, gure autonomia erkidegoan egongo diren ferietan eta abarretan gure produktua salgai egongo da.

Gainera gure produktuarekin lotutako hainbat zerbitzuren ideiak ditugu. Gustatuko litzaiguke hainbat tailer egitea erleen lanari buruz eta gure ekoizpen produktuei buruz. Tailer horietan, azalduko genuke erleek nola lortzen duten eztea, zertarako erabiltzen duten propoleoa, gure produktuen erabilpena, ...

